BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

2464

90/2012 DEKRETUA, maiatzaren 29koa, Vitoria-Gasteizen Lakua Bigarren Hezkuntzako Institutua sortzea xedatzen duena.

Autonomia Estatutuko 16. artikuluaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskuduntzak ditu irakaskuntza osoan, maila, modalitate eta espezialitate guztietan, betiere, bazter utzi gabe Konstituzioaren 27. artikulua, azken hori garatzen duten lege organikoak, Konstituzioaren 149.1.30 artikuluak Estatuari aitor dizkion ahalmenak, eta Konstituzioa betetzeko eta bermatzeko beharrezkoak diren goi ikuskaritzak.

Irailaren 26ko 2808/1980 Errege Dekretuarekin bat etorriz, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio sortzea, aldatzea, zabaltzea, bat-egitea, sailkatzea eta kentzea unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoak.

Bestalde, otsailaren 19ko Euskal Eskola Publikoaren 1/1993 Legeko 5. artikuluan xedatu da Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoei dagokiela irakaskuntzaren programazio orokorra egitea eta Euskal Eskola Publikoa osatzen duten ikastetxeak sortzea, aldatzea eta kentzea.

Vitoria-Gasteizko Lakua-Arriaga auzoko ikastetxe publikoetan ikasle ugari dago eskolatuta haur-hezkuntzan eta lehen hezkuntzan, eta 2012-2013 ikasturtean bigarren hezkuntzan hasiko dira. Beraz, beharrezkoa da bigarren hezkuntzako beste institutua bat sortzea auzune horretan.

Horrenbestez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko maiatzaren 29an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honakoa

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Lakua Bigarren Hezkuntzako Institutua sortzea, helbidea Vitoria-Gasteizko (Araba) Xabier kaleko 1ean izango duena eta 01007166 kode-zenbakia eta 010512 EAEko kode-zenbakia izango dituena.

2. artikulua.– Ikastetxea 2012-2013 ikasturtean jarriko da abian.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailburuari ahalmena ematen zaio, dekretu honetan ezarritakoa garatzeko eta gauzatzeko beharrezko xedapen guztiak emateko.

Bigarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango ditu ondorioak dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko maiatzaren 29an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.